



**Gatikako udala**  
Bizkaia

2014ko abenduaren 17ko EZOHIKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA

DEIALDIA: LEHENA  
HASIERA ORDUA: 19:33  
BUKAERA ORDUA: 19.59

**Bertaratutakoak:**

- 1.- Jesus Maria Fullaondo Alzibar.
- 2.- Leixuri Arrizabalaga Arruza.
- 3.- Maite Lekanda Bilbao.
- 4.- Vanesa Alvarez Zorrilla.
- 5.- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga.
- 6.- Unai Arrizabalaga Urrutia.
- 7.- Mikel Larrazabal Zurbanobeaskoetxea.
- 8.- Unai Arruza Elorduy.
- 9.- Naiara Beldarrain Fullaondo.

**Idazkaria:** Iker Jaka Arratibel.

**1.- Arteko akteen onarpena.**

2014ko azaroaren 26ko ohiko osoko bilkuraren akta bertaratuek aho batez onartu dute.

**2.- Azpiegiturak S.A.U eta Gatikako Udalaren arteko hirigintza hitzarmenaren behin betiko onarpena hala badagokio.**

Idazkariak prozedurari dagokionez, adierazten du azaroaren 11n iragarkia atara zela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta 20 egun pasa ostean ez dela erreklamaziorik egon.

Alkateak gero esaten dau gero egin behar dana dela onartutea behin betiko eta gero alkateari boterea ematea ere, hurrengo puntu, honegaz lotuta dagoela.

Alkateak bozkatzera deitzen ditu eta talde ezberdinen interbentzioak hasten dira.

BILDU alderdiaren aldetik Vanesak hauxe dio:

"Honek jada usain txarra deko. Ez da normala eskolak zuen beharra ezagututa eta Eusko Jaurlaritzaren partetik eskola berri bat egiteko konpromisoa idatziz edukita 6 urte beranduago udalak ez izatea lurak Hezkuntza Sailari emoteko, ez da normala. Eskola egiteko lurak badauka udalak baina ez dozue eskolari lehentasuna emongo. Ez daukagu ezebe, 2007 udalak Mesagaz sinatu eban hitzarmen bat, ondoren Azpiegiturak-ek bere gai hartu eban lurra hori erostea eta hitzarmen hori ez da bete eta orain 7 urte pasa



## Gatikako udala

### Bizkaia

ostean beste hitzarmen bat sifiatu nahi duzue. Ezetz bozkatuko dogu baina argi eta ozen ere esan nahi dugu eskola egitearen alde gaudela ze Gatikak eskola behar dau ja”

Alkateak dio:

“Erantzutearren horri, ez dozu esan gauza berririk eta ez dogu erantzun beharrik ere ze gauza berdiñak dagoz orain dela hilabete berba egin gendunagaz. Zuek bakarrik ez zaudete eskolaren alde eskolaren alde guztiok gauz

Ondoren Ugutzek eurak, GTIkoak alde bozkatuko dabela esaten dau.

Mikelek, GTI ordezkatzuz hauxe dio:

“ Komentario bat esatearren uste dot dana dagola esanda jada eta ea lehenbailehen mogitzen dogun beste guztia.”

Leixurik EAJen ikuspuntua azaltzen dau eta hauxe dio:

“Gure taldeak alde bozkatuko dau. Guk ere ez gara sartungo gauzak leporatuten batak besteari, guri ere leporatu jakuzan gauzek ezker abertzaleri ere leporatu diozaiokegu modu bardin bardinean”

Mikelek galdetzen dau ea zer dioen ezker abertzalea dioenean.

Alkateak eta Leixurik zuzenketa egiten dabe eta EH BILDURI buruz hari direla esaten dabe.

Leixurik jarraitzen dau:

“EH BILDUK leporatu diguna guk ere leporatu ahal d’oguz EH BILDURi, ikuspegi ezberdiñak gara, zuen ustetan guk ez dogu urteetan ezer egin gure ustean zuek izan zarie ez dozutenak ezer egin ez dakit zenbat urteetan eta gainera traba pila bat jarri eta beno eskertu GTI taldeari, eskerrak talde bat sortu zala legegaldi berri baten eta horrelako akordio batera iristeko prestutasuna izatea”

Mikelek eskerra emotea ez dela beharrezkoa erantzuten deutso eta bere taldea aspaldi zegoela gai honen alde adierazten du.

Vanesak ondoren dio:

“Erantzutearren herriaren alde edo eskolaren alde egiten dezutela ba galdetu herrian ea herriak zer behar dauen, ea eskola bat behar dauen edo behar dauen eskola bat MESAn ze azkenean zuei sartu zaizue buruan MESAn izan behar dela, gehiago esan, iritsi zarete puntu batera izan behar dela edo MESAn edo ezer ez eta jarraitzen dogu ba aurrerapauso barik. Ulertzen dogu hauteskundeak direla eta 3 urte ezer aurreratu barik hauteskundeak datozela hau nahi duzuela atara aurrera baina gure ustez eskolaren gaia kolapiloratzea eta atzeratzea da”

Leixurik dio:

“Erantzutearren herritarrek ahalmen hori eman digute gure lau botoak eta GTIkoen 3 botoak, proiektu hau gure programan zegoen jasota eta GTIkoen programan ere eskolako baegoan jasota”



## Gatikako udala

Bizkaia

Bozketa egiten da eta hurrengo emaitza ematen da:

Aldeko botoak.

EAJ-PNV: Alkatea eta 3 zinegotziak

GTI: 3 zinegotziak

BILDU: 2 zinegotziak.

### 3.- Alkatea bilkureak ahalbidetzea hala badagokio, Gatikako Udalaren izen eta ordezkaritzan Azpiegiturak S.A.U-gaz siñatu beharreko hirigintza hitzarmena siñatzeko.

Beharrezkoa izanik Gatikako Osoko Bilkureak alkatea ahalbidetzea Gatikako Udalaren izen eta ordezkaritzan Azpiegiturak S.A.U-gaz hirigintza hitzarmena siñatzeko, botere emate hau bozkatzen da eta hurrengo emaitza ematen da:

Aldeko botoak:

EAJ-PNV: Alkatea eta EAJ-PNVKo 3 zinegotziak.

GTI: 3 boto.

BILDUKo ordezkaririk Vanesak eta Naiarak, ostera, kontrako botoa eman dabe.

### **4.-Gatikako Herri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onarpena ematea hala badagokio.**

Honi buruz idazkariak esaten dau Ez Ohiko Komisio batean gai hau aztertu zela, diktamen bat egon zala eta diktamena ez dela loteslea.

Alkateak dio:

“ Gai hau ere hainbat aztertu dogu eta beste aurreko gaiarekin lotuta doa eta bozkatu egin behar dogu orain eta herriari eman ahotsa alegazioen bitartez aporta dadilen euren iritziaik”

BILDURen aldetik Vanesak hauxe dio:

“ Guk uste dogu hirigintza planeamendu hau ez dela herriari begira egin. Uste dogu Azpiegiturak-en hitzarmenak baldintzatu duela dana eta horregatik ez gauz ados, ez dogu sartun nahi iforen negoziotan eta orain arte herriaren alde egin dugu lan eta horretan jarraitu nahi dogu bai herriagaz batera egindako antolamenduari eta bai herritarren beharrianak betetzen dituen planari”

GTI-ren aldetik Mikelek dio:

“ Guk hasiera batean aurretik kritikoak izatea pentsatu gendun baina ikusita beharrezkoa dela eta hori bai argi utzita berandu etorri dela eta ez dela momenturik aproposena baina hori gero aztertuko dogu martxan ipintzeko prest gauz; beraz, herriari eman behar dana”

Gero Unai Arrizabalagak dio bozkatu ez duela nahi ze familiaren terreno batzuk sartzen dire barnean eta bera abstentitu egingo dela dio.

Ondoren bozkatu egiten da eta hau da emaitza;

Unai Arrizabalaga EAJ-eko zinegotzia abstenitu egiten da eta ez du bozkatzen.



## Gatikako udala

### Bizkaia

Aldeko botoak:6

EAJ 3 boto: Alkatea, Leixuri Arrizabalaga eta Maite Lekanda

GTI 3 boto: Mikel Larrazabal, Jon Ugutz Rotaetxe eta Unai Arruza.

Kontrako botoak:2

BILDU 2 boto: Vanesa eta Naiara.

Idazkariak behin dokumentua onartutzat emonda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela dio 30 lanegunez jendeak egoki iristen dio erreklamazioak egin ditzan eta ondoko udalerriei eta eskudundun erakunde eta organismoiei bidaliko jakela ere adierazten du hauek aztertu ostean dagokion erabakia hartu dezaten.

Leixurik gero hauxe dio:

"Niri gustako jaken zerbait esatea EH BILDU-ri zeren eta BILDUKo ordezkariak lasai lasai negozioetat berbetan hari dira, beraz; EH BILDUK iñolako susmorik badauko hauek negozio iluñak direla badaki non egin behar dituen salaketa ofizialak eta ez bazterrak nahastea pleno publiko batean.

Mikelek dio:

"Bueno azkenean hauteskunde garaian bakoitzak bere ardura hartzen du eta guk horri buelta asko eman deutsugu baina ailega da ailega danean eta badakigu ahalegina hori egin dala. Gehiago ere egin al zala be bai. Bestalde, eskertzen dot Unai Arrizabalaga abstenitu izana ze bere garaian orain dela urte asko Herri Batasunaren izenean orduan jada bazegoen lurasil hori kalifikatuta zeozelan"

Unai Arrizabalagak gero eskertu egiten dio Mikeli esatea bera zinegotzi izatera iritsi baino lehenago lur hori jada kalifikatuta zegoela esatea.

Gero Naiarak esaten die EAJ-ekoei eurak beti iritzia emango dabela gustatu edo ez gustatu eta noegozioak direla edo esaten dau ere ez dutela iñoako salaketarik ipini. Eta plenoa ez bada lekua iritziak emoteko orduan ea zein den lekua galdetzen dau.

Leixurik erantzuten deutso negozio ilunak daudela uste badutela auzitegira joan behar direla dagokion salaketa ipintzera. Bestalde, adierazpen hauek publikoki ere botatzea gaitzetzen du.

Vanesak hau erantzuten dio:

"Negozioetan ez dogu sartu nahi eta argi ikusten dugu Azpiegiturak-ek lurak erosi dauela eta lur horri etekin bat atara nahi diola, eta Azpiegiturak-ri emango zaio baimen bat hainbat etxebizitza egiteko eta birkalifikatuko da lur bat industrialia dena urmao ipintzeko edo dotazionala ipintzeko eta eukiko dau baimena etxebizitzak egiteko. Hori dela eta argi eta garbi ikusten dogu egingo dabela etxebizitzak urbanistikoki hobea den lur batean eta hitzarmen honen ondoren lehen eraikin bat eta ofizina batzuk bota behar zirenak ez dira botako eta hor ikusten dugu etekin bat, eta hor ikusten da nork irabazten duen edo herriak edo eurak"

Leixurik erantzuten deutso eskola berri bat egiteko instalakuntzak eskuratzen dabezala herriak.

Vanesak erantzuten deutso eskolak egiteko lurak jada badauzkadala, beste aukera batzuk ere aztertu direla eta Azpiegiturak-en hitzarmen honek eskola ipintzea atzeratu duela

Alkateak Vanesari erantzuten deutso:



## Gatikako udala

Bizkaia

"Hori zure iritzia da eta jarraitu horrela, udal honen gehiengo batek ade bozkatu da baina zuk jarraitu horrela eritzigaz eta zuk ez duzu onartu nahi baina negoziarik ez izendatu".

Gero GTIko Unai Arruzak hitza hartzen du hurrengo hau esateko:

" Nik bakarrik esan gure dot apur bet kontestutik ez atarateko Vanesa negoziotaz berba egin dabenean batez ere jardun dauela Azpiegiturak-en hitzarmenari buruz eta horren inguruan esan gura dot hitzarmen horren erantzule nagusia dala Iñaki Aginaga bere garaian alkate izandakoa eta orain BILDUren zerrendan joan dana. Berak alkate izan zanean MESAgaz siñatu zuen konbenio bat, eta ni ez nengoen hemen oduen. Hori esan gura dot bakarrik"

Naiarak, ondoren, hauxe dio:

"Guk onartzen dugu plenoak onartutakoa baina guk gure iritzia botako dugu gustatu ala ez gustatu. Hemen gehiengo baten iritzia onartu ez dabena zuek izan zarie gehiengo batek onartu zuenean plan bat eta zuek ez zenutenean aurrera eraman eta guk kritika egiten dogu baina guk erabakia onartzen dugu guk ez dugu trabarik egiten erabakiari hemen erabaki bat onartu zenean eta aurrera eraman ez zenean zuengatik izan zen"

Alkateak erantzuten deutso askotan berba egin dabela horren inguruan eta arrazoia izan zela tartean udal hauteskundeak egon zirala eta plenoa aldatu egin zela. Plenoa aldatu bakarrik ez baizik eta pleno berriak iritzia aldatu dauela eta horren inguruan asko jardun dabela lehen.

Gero Vanesak dio:

"Unai 2007an onartu zan hitzarmen horrekin lotuta, hitzarmen horren arabera lur hori birkalifikatu egingo da eta 71 etxebizitza egiteko baimena eduki dau baina hitzarmen horrek ez du lotzen eskola bertan egin behar danik, esan gura dau hitzarmena betetzen bada ere eskolaren atzerapena edo eskolaren asuntoak ez deko zerikusirik, eskola egin ahal da arazorik ez dekon beste lur batean eta hala ere lotu da lur horregaz eta kontaminazioaren arazoa egon da. Zabalik geratu zan hitzarmena egin zenean eta udalak lur hori erabili nahi ezkerro aprobetxamendu urbanistikoa beste leku batean emango zitzaion"

Unai Arruzak erantzuten deutso ados baina gehiengo batek erabaki dabela eskola bertan ipintea.

Vanesak erantzuten deutso lehengo hitzarmenak ez dauela hori ipinten eta mesedez ez botatzeko errua Iñaki Aginagari.

Unai Arruzak erantzuten deutso:

" Ez dostezu ulertu agian nik esaten dot konbenio horren gainean eta dana dala esan gura dot hemendik 5 hilabetera zuk askotan aipatzen duzun herri horrek esango dabela ondo egin dogun ala ez eta nik tranquil nabil"

Alkateak gero hauxe esaten dau:

" Ba nik bai botakotzet errua Iñaki Aginagari eta nik uste dot ez zagozela ondo jakitun horretaz. Nik uste dot apur bet enterau behar zariela zer gertatu zan garai horretan aze askotan aipatuten dozu ez zenekitela zer gertatu zan garai horretan. 2007ko konbenioa siñatu zana Iñaki Aginaga alkate izanda eskatu zen konbenio



## Gatikako udala

Bizkaia

hori eta hori konbenioa zergatik prestatu zen horrela zeren eta 2005 urtean arau subsidiarioak aldatuteko zeuden garain Avance dokumentua onartu zan udalean eta bertan agertzen zen leku bat egiteko eskolak dotacional modura eta horregatik konbenioa hortik joan zan bide horretatik eta beraz ez esan lñakik ez zekiela ze bazekien ze berak onartu zuen dokumentu hori garai horretan eta dokumentu horretan jada jasotzen zen MESA inguruan eskola bat egitea. Beraz, galdetu mesedez"

### **5. Ingurumen Eraginaren Azterketa Bateratua dokumentuaren hasierako onarpena hala badagokio.**

Idazkariak honen inguruan dio behin onartu Bizkaiko Aldizkari Ofizialera igorri behar dela iragarkia 45 lanegunez jendaurrean ipinteko norbaitek alegazioak gura badauz egin.

Bozketa ematen da eta hurrengo emaitzak ematen dira:

Aldeko botoak:

EAJ-PNV: 3 boto.

GTI: 3boto.

Kontrako botoak:

BILDU: 2 boto.

Abstentzioa:

Unai Arrizabalaga ( EAJ-PNV). Aurreko puntuan aipatutako arrazoi berberengatik.

Beraz, IEAB dokumentua onartu egiten da.

Eta aztergai gehiago ez dagoelarik, osoko bilkurea amaitutzat ematen da

Eta aztergai gehiago ez dagoelarik, 19.59an amaitu egin da osoko bilkura hau.

